

Laburpena: EH kultur politika kulturaren zentralitate eskasak ezaugarritzen du. Kultur politika gehio da politika kultura baino. Leku prekarioa dauka ikuspuntu instituzional batetik eta erratikoak ikuspuntu estrategiko batetik.

1. Sarrera

EAEko kultur politika politikaren zentralidadeak, kulturaren kalterako, ezaugarritzen du. Frankismoan euskerak zuen izarea klandestinoak eta osterako irrupzioak esfera publikoan egite/ekintza kulturalaren fetixizazio moduka bat ekarri du (esateu. “que va a confluir con los ya devastadores efectos de vaciamiento de la cultura provocados por una cultura endémica de “maquina herramienta”. Fetitxea den heinean, frankismoa bukatuta ostean emandako instituzionalizazioa kultura identitate eta politikaren logiken baitan egingo da. Dislokazioa handia helburuen eta bitartekoen artean: Helburua, kultura politiko bat non egite kulturalari karga simboliko handia egotziko zaion, haren funtzionalitatearen kalterako. Bitartekoei dagokionez, ambito politiko administratiboa ohituta dagoen bitarteko eta prozedurak erabiliko dira, subentzio dekretuak eta ekipamentuan gastuak, kultura bizia ignoratuz. Kultura politikarentzako dago egina.

Tentsio politikoak pixka bat baretzean eta frankismo osteko instituzionalizazio fasea bukatuta, mende hasieran gobernantza kultural baten lehenn saiakerak egiten dira, batez ere Plan Vasco de la Culturekin. Dena dela, lehenko kultura politikoaren inertiak, konpondu gabeko auzi identitarioak “y esa pertinaz cultura material de lo tangible” saiakera hauek oztopatu. Honi erreakzio modura, aditu sare bat ari da sortzen, kultura politikatik bereiztearen beharra azpimarratzen dutenak. Etorkizuneko gobernantza kulturala aditu sare jhonek egiten duen presioaren eta gizarreak haien emandako konfiantzaren araberakoa izango da.

2. EAEko kultur politikaren instituzionalizazio prozesua

EAEko kultur politikaren gabeziak bat eskumen banaketa edo zehaztapen lauso bat da, ondo definitu gabea, izan ere, kultur eskumenak udalei, diputazioari eta autonomia erkidegoari dagozkie. Kultur politiken eboluzioa azaltzeko, Zallok egindako banaketa hirukoitza erabili.

1. Etapa (1979-1987): Normalizazio eta iraganen politikoki jazartua izandako kultura baten baliostea. Politikak zentralitatea kulturaren gainean. Sortzaileei laguntzak emateko sistema bat ezarriko da, eta difusioak garrantzia handia hartuko du zehaztuz ez den kultura bat zabaltzeari begira, ekipamentu programa eta ondarearen hobekuntza. Politika hau era urgentean eta presaka egiten da, antolakuntza egokirik gabe. Kulturaren egoera estrukturalki prekarioak, haren instituzionalizazioa maila eskasak, zera eragingo du: kultura oportunitate politikorako egitura bat bilakatuko dela. Askok kultura, batez ere normalizazioa lingoistikoaren (honen zentralitatea kultur politikan sistemaren konstanteetako bat izango da) esparrutik, politikarako tranpolin bezala erabiliko dute.

2. Etapa (1988-2001): Insituzionalizazioa etapa bat. Politikak zentralitatea kulturaren gainean. Egitura instituzional eta aurrekontuak egonkortu egingo dira, eta azpiegiturak sortzen dira. EH ezaugarritzen duen gaininstituzionalizazioak, kulturaren esparruan ere, 70 hamarkadako eferbeszentzia sozial eta kulturala apalduko du, trantsizio hasierako bizitasuna, kezka sozialak, debatea eta kritikotasuna gutxitu dira. "Kulturaren aburgesamentu bat" ekarri du insituzionalizazioak. Garai hoentan eusko jaurlaritzak eta diputazioek gastu kulturalaren %80 bereganatuko dute, gizarte zibilaren kalterako. 1992tik aurrera (Guggenheim martxan jarri zen urtea) kultur politika obra handien eraikitzean eta teknokratizazioan zentratuko da, subentzio fijoetan oinarrituz norabide argirik gabe. Etapa honetan kulturaren gobernuaren algoritmoa izendatu genezakena impositzen hasten da "ekipamentua + inbertsioak". Hau bi faktoreren ondorioz: kutlaren sobredimentsionamentu simboliko bat, subentzioaren bidez blindatua izan behar duen kultura baten existentzia presuposatzen duena (eta gorde beharrako ondare batena) y eta modernizazio instrumental, ez sustantibo, bat, azpiegituran jartzen duena fokoa, edukiak eta intangiblea dena bigarren planoan utziz. Guggenheim litzake honen adibide: eragin handia dauka Bilboren irudian, baina ez du kultura bizi baten garapenean eragiten. Kultura, horrela, bere base sozialetik despegatzen hasten da.
3. Etapa: Gobernantza kulturalaren etapa. Kulturak ja autonomia bat lortu politikaren gainean. Euskal nazionalismoak bultzatutako Plan Vasco de la Cultura eta PSOEn Contrato Ciudadano por las Culturas subetapak bereiztu daitezke, baina biek daukate amankomunean kultura gobernantza berri baten sorreraren alde apustu egitea, kultura esfera politiko-administratibotik partzialki bereiztea, eta kultur politketan agente berrien parte harzte bilatzea.

3. Politikaren zentralitatea EAEko kultur politikan

Frankismoan zehar, eguneroko bizitza eta bizitza politikoa zaila da ezberdintzea, izan ere, azken hau debekatua zegoen. Testuinguru honetan hazten da euskal kultura, eta horrela euskal kultura oso era politizatuan gorpuzten joaten da. Azken 40 urtetan, eferbestzentzia kultural ziklo bat bizi izan dugu 70 hamarkadan, 80 eta 90 hamarkadetan, eta mende hasieran gobernantza kultural politikarekiko bereiztu bat osatzen saiatuko da administrazioa pixkanaka, baino etengabe itzuliko da debate politikoa. Tekniko eta adituen artean pertzezio orokortu bat dago kultura politikaren zerbitzura dagoela, eta kultuari balio simboliko gehiegi eman zaiola. Kultura eztabaida politikoaren esparru bat da. Testigantza bat aipatzen du "badago jendea kultur politikak etsai politikkoari kaña emateko erabiltzen dituna". Politikaren zentralitate hau kulturaren gobernuaren algoritmoarekin dago lotua, hau da, kultur politika bat non 2 alderdi ditugun: Subentzio sistema bat (eta ondarearen preserbazioa), eta ekipamentuan inbertsioa, beste alde batetik. Subentzio ya existitzen denaren balorizazioa da, kultura biziaren kalterako. Ondareak berriz, jada alderdi indetitarioari erantzuten dio "izan garena gara", patrimonializazioaren kalterako (ondare kulturalaren sorkuntza eta haren bitartez identitate berrien sorkuntza). Zallok dio jende

batek kultura era espiritualista batean ulertzen duela, etorkizuneko kultura iragana birproduzitzera kondentzen duena, gaur egungo kultura modernitatetik eta gaurkotasunetik deslotuz.

Subentzion bidezko tutela handiegia egon da kulturaren esparruan instituzio publikoen partetik. Haren itzalpean empresa edo produktorak sortuz joan dira, "makinaria mantentzen expertuak bilakatuak". Izan ere, askotan gauzka subentzioak daudelako soilik egiten dira, eta kontrakoa izan behar du.

Estrategia honek ez du konpromezu etiko eta estetiko estimulatzen, kutlrua oportunitate egitura bat bilakatzen da subentzioen jokua ulertzen dutenentzako, kanpoan geratuz "subentzionagarriak" ez direnak. Subentzio politiko eredu honek, "daukanari emango zaio" produkzio/sorkuntza gero eta funtzionariatzatu bat eragiten dute, "mientras que el espesor funcional de la administracion es, como veremos, muy precario".

Ekipamentua, algoritmoaren bigarren zatia. Aritu eta teknikoak ados daude, politikariek garrantzia handiegia ematen diote ekipamentuari, eta gutxiegi edukiei. Guggenheim naiz Donostiako tabakalera dira haren adibide. "Erakinean prentsatzea", eta ez proiektu kulturalen.

Bi faktorekin du zerikusia euskal kulturaren ekipamentuek daukaten pisu erreal eta simbolikoa: Alde batetik, ekipamentuak kultura gestionatzeaz arduratzen diren politikaren hizkuntza partikularra dela, eta bestetik, EH ko kultura materiala. Zallom dion bezala, "una explicacion por esa falta de preocupacion del capital vasco por desarrollar una infraestructura industrial cultural fue la especializacion productiva del capital y su falta de interes-una desidia historica-hacia todo lo relativo a produccion cultural". Adibide bezala jartzen du Garmendia kultur kontseilaria, hitzaldi atean esate zuna EH bien materialen produktora ona zela (makinaria, barkueak etab), baina orain konturatu ziala bien kulturalaren sortzaile eta kontsumitzaile on ere izan gitezkeela. Adibide bezala azpiegiturak jarri (Guggenheim etab.).

4. EAEko sistema kulturalaren dinamika

EAEko kultur politikaren arazo nagusietako bat eskumenen konkurrentzia izan da, proiektu kultural integral bat ezinezko egiten duena. Legislazioa ez du laguntzen, zeinek ez duen era argi batean esaten zer eskumen dagokion administrazioaren zer mailari. Ez promozio ez produkzio ez sorkuntzari dagokionez, ez dago distribuzio argirik.

Kultura departamentuen harremana gainontzeko departamentuekin konplexua da, eta kulturak bestelako interesekin izan ditzakeen sinergien (Incremento de la acción de diversas sustancias debido a que actúan conjuntamente.) araberakoa da. Elakrekintza honetarako testuingurua ona da, Europa 2020 agendak balio handia ematen dio ukiezinei (intangibles), berrikuntza, ikerketa eta garapen eta sormen eta kultur industriei. Baina berriz ere EHko "kultura material"aren ondorioz saretze hauek ematea ez da erraza. Adibide bezala jarzten du Plan Vasco de la Cultura egin zen garaian zegoen Industria eta Kultur departamentuen arteko desadostasuna. Industria departamentuek ez ditu empresa asko industria kultural gisa errekonozitzen ere, beste industriei jarritako baldintzak beetzen ez dituzte eta. Izan ere

emreza kulturalak askotan oso txikiak dira, autoemplegurako estrategiak ez direnean, eta ez dituzte Industriak eskatzen dituen minimoak betetzen.

Eta ez bakarrik departamentu hauen baitan, Gobernuetako eta Diputazioetako departamentu, baita udeltxeetako kontzejaliek kultura 2 mailako gisa hartzen dute. Kultura departamentuaren baitan ere badaude desadostasunak, adibidez, euskeraren ormalizaziorako bideratzen diren laguntza kantitate handiagatik.

Administrazioa itzuliz, koordinazio faltaren adibide bat da PVC-k sortutako "Komisio interinstituzionalaren" aktibitate baxua, berez administrazioaren maila ezberdinen elakrekintzarako tresna izan nahiko lukeena (kideak hiribuetako udalak, EUDEL udalen elkarteko errepresentanteak, diputazio foralak eta jaurlaritza).

Merkatu eta 3 sektorearekin harremani dagokionez, bisio falta handia dago agente kultural eta administrazioen aldetik hauekiko. Administrazioetik ikusten dena da sektore profesionalak administrazioa kutxazain huts bezala ikusten duela. Kultur industriaren partetik berriz, subentzio politiken morrontza salatzen da.

Jakintza artistikodun adituek eratutako organismo profesional semi autonomo baten falta sumatzen da, Cataluñako CONCAk bezala (Consejo Nacional de la Cultura y las Artes de Cataluña) erabakimen gaitasun duena eta diru publikoa erabili ahal duena. EAEn ez dago aditu talde instituiturik, nahiz eta 2001etik aurrera adituak gero eta pisu gehiago hartzen joan.

Ondorioa: Administrazio maila eta borondate politiko ezberdien desadostasuna neutralizatzeko eta proiektu kultural sendoak aurrera eramateko ehun instituzional bat falta da. Plan estrategiko eta kultur politika integral eta koordinatu baten ezean, proiektu estrategikoen bidez edo patronatoeta (hau da instituzio batean kudeaketa elkarbanatzea adib. diputazio eta udalak) kolaboratuz egiten da elkarekintza, baino proiektuak lan egiteak planifikazio koordinatuak duen erreferentzialitate koordinatua alde batera uzten esan nahi du.

5. Gobernantza kulturalaren deklinazioak Euskal Herrian

Kulturaren gobernuan: Politikak zentralitatea kulturaren kalterako. Garai honetan kultur politika kultur demokratizazioaren paradigma dirigista, "subentzioak+ekipamentua" algortimoan oinarritua.

Gobernantza kulturala: administrazio maila ezberdinen, merkatuaren, gizarte zibilaren eta organizazio pribatuen elkarekintza bultzatzen du, ez era jerarkiko batean, goitik behera, baizik eta sareak eratuz erabaki publiko-pribatu-zibilak hartzeko. Kultur demokrasiaretik paradigma progresistagoetara, non erabakiak hartzeko lekua ez den administrazioa soilik, eta gizarte zibilak eta sektore kulturalak parte hartu dezakete.

EHko kultur politikak 3 garapen estadio izan ditu: Lehendabizi, konfrontazio politikoak markatutako garai bat, non tentsio politikoek edozein kolaborazio ezberdin ekidin. EHn konfrontazioak nazionalistak/konstituzionalistak klabeetan egin. Gero daukago proiektutako kolaborazio bat, non konfrontazio politkoa pixkat baretzen den eta adituei leku gehiago ematen zaien. Bi fase hauek kulturaren gobernuari dagozkio, baina azken fasea kulturaren gobernutik gobernantza kulturalera trantsizioa izango litzake (oain bizitzen ari garena). EAEn gobernantza kulturala ezartzeko lehen saiakera PVC izan zen. Ezaugarriak: Kulturaren sektore ezberdinak ("estados de la cultura" esango diena) egituratzen saiatzea + kulturgintzaren paradigmaren aldaketa bat, agente publikoen koordinazio handiago baten eta agente pribatu eta sozialen koordinario handiago baten aldeko apustua. Koordinazio gehiago bilatzen da, beraz, 2 maletan: koordinazio bertikala administrazioaren baitan (udal, diputazio, gobernu) eta kulturaren sektore ezberdinetan erikusia duten agente ezberdinekin.

Koordinazio bertikalari dagokionez, ezartzen da Jaurlaritza dagokiola ondare kulturalaren babesa, eta diputazio foralei bere kontserbazio eta errehabilitazioa. Orokorrean, aktibitate profesionalaren eta produkzioaren estimulua Jaurlaritzan esku uzten da, eta diputazio eta udalei jarduera amateurrari babesa, exhibizioa eta eskaintza kulturalarena.

Baina benetako berrikuntza PVCren "kultur estadioak" ideia da, instituzioen eta "sektore" kulturalen elkarekintza zabalago bat suposatzen baitu, adituen sistema baten mediatzioaren bidez. PVCK, ideia honi jarraiki, zera azpimarratzen du, administrazioak animatzaile papera izan dezakela, baina ez antolatzailearena, ez da titularra, euskal kultura euskal gizaritzaarena da, eta ez administrazioaren ondare.

PVC bi tentsioen artean mediatzen saiatzen da: Alde batetik, tentsio identitarioak, eta bestetik, funtzionalitatearen bilaketa. Batzuek plan identitariotzat hartu zuten, eta haren bultzatzaileek berriz politika, kultura eta identitateen arteko harremana aldatzeko saiakera konstziente bat. Lehengo kultur politikak identitatearen ulerkera esentzialista bat zeukan eta kultura instrumentalizatzen saiatzen zen helburu politikoak lortzeko. PVCK berriz ez du kultura instrumentalizatzen, baizik eta tresna bezala erabiltzen euskal identitatea desesentzializatzeko eta kultura despolitizatzeko. Lehengo kultura eta politikaren arteko harremana inbertitu egiten da, lene politika bazen kultura egiten zuena, orain kultura erabiliko da herrialdeko politika kulturala aldatzeko. Honen adibidea da, adib, PVCK egiten duen euskal kulturaren definizio ireki eta malgua.

PVCK erakusten dute EHko kultur politika profesionalizatzen ari dela, eta adituen sistemengana, politizati gabeak, jotzen duela. Planean bertan kultur politikameredu ezberdinei buruz gogoeta egiten da. PVC 3 kultur politikak eredu nahasketa baten alde egiten du: demokrazia kulturalaren paradigma, kulturaren sektoreetan eta gizarte zibilaren parteharztean jartzen duena enfasia, horiek ikusten baitira kulturaren benetazko subjektu aktiboak; beste

alde batetik, instrumentalizazio ekonomikoaren paradigma, non kulturare nbidezko aberastasunaren sorkuntza baten alde egiten den apustua (errentagarriak ez diren kultur jarduerak baztertu gabe), kultur industriaren, kultur turismoarekin lotuz; eta azkenekoz garapen multidimentsionalaren paradigma, non kultura aberastasun propiorako, kohesio sozialerako, identitate kolektiborako, birgenerazio iurbanorako, garapen ekonomikorako, eta orokorrean, bizi kalitatearen hobekuntzarako bitarteko gisa ikusia den.

Kulturari balio edo dimentsio ekonomiko bat emateak kultura desensializatzeari laguntzen dio (hurrengo pausua identitateari balio ekonomikoa ematea da, “deriva que esta alcanzando sus maximas cotas de desarrollo con la “marca pais”).

PVCK, gainera, kulturaren transbertsalitatea azpimarratuko du, aldarrikatuz kultura ez dela kultur departamentuarekin soilik dagokion esparrua, hezkuntzan, urbanismoan, indusrtarian, turismoan... ere presente baitago. Horrenbestez, harengan eragiteko kultruak agente publiko eta pribatu ezberdinek elkarekintzarako espazio izan behar du, gobernantza espazio bat bilakatu behar du. Kulturak, tratamendu sektorial eta instituzional bai naino tratamendu sistemiko bat behar du. Tratamendu sistemiko hau PVCK zirriborratutako “Sistema Vasco de la Cultura” ren baitako instituzio ezberdinen bidez bideratuko zen: Consejo Vasco de la Cultura, Comision de Coordinacion Interinstitucional (estrategiak kontzertatu eta proiektuak txekatzeko), Observatorio Vasco de la Cultura (kulturaren eboluzioa errebisatzeko, nola dijoan ikusteko etab.), Instituto Vasco de las Artes y las Industrias Culturales. Baino errealitatean planak zailtasuna izan ditu kulturaren departamentutik at ateratzeko, eta gabezia handiagoak bai planaren garrantziaren kontzientzian eta aurrekontuetan. PVCren mugak ez dira borondate politikoaren, aurrekontuen eta espesor funtzionalen arabekoak soilik, baizik eta imaginazio kulturalaren gabeziarenak.

El Concrato Ciudadano por las Culturas, PVCren adaptazioa gobernu sozialistaren programara, PVC berpolitizatzekeo saiakera bat suposatzen du , pueblo kontzeptua hiritartasun kontzeptuarekin ordezkatzuz. Dena dela, CCCa PVCak abiatutako ildoan egonkortzen saiatzen da, inizatiba transbertsalak indartzen saiatuz. Hala ere, CCCk euskal kulturaren gabezia bat identifikatzen du: luzaroan euskal gizartea jasotzaile, hartzaile pasibo gisa irudikatu dela, eta horregatik hiritarrekin komuniaktzeko emkanismo eraginkorren beharra azpimarratzen du. Bi planek bat egiten dute adituen behar batekin. PVCK ordea enpresekin lotuak egon ohi diren metodologiaren alde egiten zuen, eta CCCn arreta berezia eskaitzen zaie sare sozialei eta TIC-ei (TECNOLOGÍAS DE LA INFORMACIÓN Y COMUNICACIÓN), hiritareen parte hartze zuzena ahalbidetzen dutelarik. Destaca en este sentido el Portal Vasco de la Cultura (kulturklik).

6. Beste kudeaketa kulturalaren ereduak

Sistema kulturala hartzen ari den gero eta konplexutasun handiagoa kulturaren kudeaketaren eredu berrien sorrera ahalbidetuko du, zeinek ez dauden hain publikoaren esku. Bi eredu hauek Bilboko Guggenheim eta EIKEN audiobisual klusterrarena lirateke.

- Guggenheim: Kasu honetan gobernantza ereduak, nahiz oso bertsatila izan (Museoa aldi berean funtzionatzen, asoziazio, patronato, sociedad tenedora da..) publikoa beste interesetara makurtzea suposatzen du. Museo honen atzeko asmoa zen tertziarizazio urria zuen Bilbora kultura ekartzeko. Helburua hiria mundu mailako metropoli bezala ezartzea zen, hiria zirkuitu kultural internazionalen erreferentzia bihurtzeko. Museoaren kudeaketa Fundaziopribatu baten bidez egiten da, presentzia mixtoa duena, non, beste kide askoren artean, museoaren funtzioak 3 instituzioen ordezkariak dagoen: Jaurjaritza, Bizkaia diputazioa eta NYeko Guggenheimeko Solomon Fundazioa. (Datu gehio museoaren kudeaketa inguruan). Gobernantza mixtoko eskema bat da. Museo honek ezarritako kudeaketa modu berriak, mundu mailako museoaren antolakuntza berriei erantzuten die, zeinen arabera museoak enpresa giza ebaluatuak eta kudeatuak izan behar diren, katalitate eta errentagarritasun eskakizun berberekin.
- EIKEN Audiobisualen Klusterra: Norabide aldaketa empresarialaren progresio bat suposatzen du, saiakera bat subentzioaren logika inbertsioaren logikaren ordezkatzeko (kredituen politika), kultur industriaren debata dakarrena informazioaren eta inbazioen ekonomien garaian, pentsatzen baita arriskua dagoela kulturaren instrumentalizazio ekonomiko handiegi batek haren espezifikitatearen galtzea ekarriko duela. Tradizionalki ikusentzuneke sektorearekin hartu eman handiena izan duten gobernuaren departamentuak Kultura, Industria eta Hezkuntza izan dira. Hauek produktore elakrteen paper reibindikarria, eta batzutan zuzenki beligerantera, zuzendutakoak. Kluster hau berriz, kluster eta ez asoziazio den heinean, partaidetza publiko-privatuz dago osatua, eta bai enpresa pribatuek bai gobernuak jartzen du dirua. Klusterrek merkatuaren logika, errentagarritasuna etab lortu behar. "tiene que cumplir la pirámide de cooperacion entre empresas para que haya empresas mas competitivas y sean capaces de hacer productos mas competitivos". Elkarrizketatu batek "para ser sector industrial las industriales culturales tienen que funcionar como un sector industrial no solo reivindicar ser un sector industrial".

7. Ondorioak:

Bere ondorioa da EAEko kultur politikaren arazoa hecho kulturalaren zentralitate eza izan dela, eta hori izan dela kultur politikaren instituzionalizazioa, eta beraz, kultura bera, beste bi faktoreren menpe egon direlako (kulturarekin lotuak daudenak): kultura politikoa eta kultura materiala. Hauen bien arteko konfabulazioak (Acuerdo secreto contra alguien o algo.) bitarteko eta helburuen arteko dislokazio sakon bat eta kultur politika

inartikulatu bat eragin dute. Helburuei dagokionez, Frankismoan zehar sortu zen kultura politikoak eta trantsizioaren hasieran indar handia izan zuenak kultura fetitxe bilakatu zuen, simbolikoki adheritzeko? kontu fetitxista bat, era funtzional batean garatu beharreko jarduera berriz. Bitaertekoei dagokionez, EAEko kultura materialak, tradizionalki ukiezinekiko ez oso zalea izan denak, eragin du administrazio publikoak gehiago kezkatzea aldirdi tangiblearekin ukiezinarekin baino, hau da, ekipamentuen inbertsio eta subentzioaren alde, kulturaren garapen sustantibo baten kalterako.

Bi faktore hauen loturak beste esparru batzuen aldean egoera prekarioan uzten ditu kultur politikak. Kultura bere konsistentzia eza edo "espesor funcional" eskasagatik babesgabe dago, eta beste esparruen menpe geratzen da: izan bedi politika (gauza fetxizitau bezala edo era indetitario batean edo legitimitate politikoaren iturri bezala), hirigintza (Guhggenheim efektua), politika lingustikoa, komunikazio politikak.. (EITBk Kultur departamentuaren diru zati handi bat hartzen duela also).

2001etik aurrera bakarrak, harreman sare honetan adituen ezagutza sartzen hasten denean, hitz egin daiteke joera aldaketa batetaz. PVCeta CCCrekin saiakera sendoak dira kultur gobernantza eredu batetik konsistentzia emateko bai sektore kultural ezberdinei bai hiritarrei orokorrean. Nahiz eta plan hauek ez duten izan beraien asmoen araerako materializaziorik, "egoeraren definizioa" aldatu dela esan daiteke. Kultura, gero eta gehiago "es vista como un sistema complejo de relaciones en el que modelos de gobernanza con vocacion publica como los arriba citados conviven, y no necesariamente en armonia, con sistemas flexibles de gobernanza publico-privada que apuntan a nuevos desarrollos del campo cultural, desde la internacionalizacion a la "empresarización" de las industrias culturales".